

## Beste Iragarki Ofizial Batzuk

### INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

IRAGARKIA, Industria eta Meategiak Adminis-  
tratzeko zuzendariarena, ikerketarako baimenak  
emateari buruzkoa. 17354

### ARABAKO FORU ALDUNDIA

IRAGARKIA, 1999ko abuztuaren 24an emanda-  
ko 2 Foru Agindua jakinarazten duena. Foru Agin-  
du hori Erribera Goitia udalerriko ordezkero arauen  
espedienteari buruzkoa da. 17354

IRAGARKIA, Vitoria-Gasteizko Hiri Antola-  
mendurako Plan Orokorra aldatzeko espediente-  
ari buruz 1999ko irailaren 9an emandako 120 Fo-  
ru Dekretua jakinarazten duena. Aldaketak Aliko  
4. poligonoan du eragina. 17355

IRAGARKIA, 1999ko irailaren 16an emandako  
11 Foru Agindua jakinarazten duena. Foru Agin-  
du hori Maeztuko 112 lurzatia etxebizitzetarako  
hiri-lur gisa sailkatzeko espedienteari buruzkoa da. 17356

IRAGARKIA, 1999ko irailaren 16an emandako  
13 Foru Agindua jakinarazten duena. Foru Agin-  
du hori Alegria-Dulantziko etxebizitzetarako  
SAUR-2 sektoreko zatiko planaren espediente-  
ari buruzkoa da. 17357

## Xedapen Orokorrak

### OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA

#### Zk-4376

339/1999 DEKRETUA, urriaren 5koa, etxebizitza eta  
lur arloan, kreditu-erakundeek eman ditzaketen  
mailegu kualifikatuen interes-tasak ezartzeko dena.

Eusko Jaurlearitzak, etxebizitza eta lur arloan babes-  
garri izan daitezkeen ekintzei dagokienez, kreditu-er-  
akundeek eman ditzaketen mailegu kualifikatuen inte-  
res-tasak arautu zituen martxoaren 24ko 61/1998 De-  
kretuaren bitartez.

## Otros Anuncios Oficiales

### DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

ANUNCIO de la Dirección de Administración de  
Industria y Minas, sobre otorgamiento de permisi-  
os de investigación. 17354

### DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

ANUNCIO de la Orden Foral núm. 2 de 24 de  
agosto de 1999, en relación con el expediente de  
Normas Subsidiarias de Planeamiento del municí-  
pio de Ribera Baja. 17354

ANUNCIO del Decreto Foral núm. 120 de 9 de  
septiembre de 1999, en relación con el expedien-  
te de modificación del Plan General de Ordenación  
Urbana de Vitoria-Gasteiz, referente al polígono 4  
Ali. 17355

ANUNCIO de la Orden Foral núm. 11 de 16 de  
setiembre de 1999, en relación con el expediente  
de la clasificación de la parcela 112 de Maestu co-  
mo suelo urbano residencial. 17356

ANUNCIO de la Orden Foral núm. 13 de 16 de  
setiembre de 1999, en relación con el expediente  
de Plan Parcial del Sector Residencial SAUR-2 de  
Alegria-Dulantzi. 17357

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE

#### Nº-4376

DECRETO 339/1999, de 5 de octubre, por el que se  
establece el tipo de interés de los préstamos cualifi-  
cados otorgados por las entidades de crédito en ma-  
teria de vivienda y suelo.

El Gobierno Vasco reguló mediante el Decreto  
61/1998, de 24 de marzo, el tipo de interés de los prés-  
tamos cualificados otorgados por las entidades de cré-  
dito en relación a las actuaciones protegibles en mate-  
ria de vivienda y suelo.

Kreditu-erakundeekin 1998ko ekitaldirako izenpetutako finantzaketarako lankidetzaz hitzarmena luzatuta dago egun, hitzarmenak hartutako akordioaren indarrez.

Etxebizitza eta lur arloan babesgarri izan daitezkeen ekintzei dagokienez dekretu honen indarraldian zehar eman daitezkeen maileguen interes-tasak arautuko dituen xedapen berri honen bidez, aurreko dekretuan ezarritako irizpideei jarraitzen zaie, hipoteka-merkatuko interes-tasen jaitsiera finkatuz.

Ekainaren 25eko 2/1999 Legeak, ekonomiaren, aurrekontuen eta finantzazioaren arloan 1999. urterako neurri osagarriak ezartzei buruzkoak, 5.4. artikuluan xedatzen du diruz lagundu daitezkeen programen interes-moten egungo bilakaera egokitu ahal izango dela; beti ere, mailegu-eragiketen finantza-zamaren murrizketaren bitartez egiten denean eta eragin horietarako, dagozkion xedapenak eta hitzarmenak aldatu ahal izango direla.

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren eta Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1999ko urriaren 5ean izandako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

#### XEDATU DUT:

##### *Artikulu bakarra.*–

1.– Artikulu honetako 5. puntuan adierazitako jardura babesgarrientzat 1999ko finantzaketarako lankidetzaz hitzarmenaren esparruan kreditu-erakundeekin ematen dituzten mailegu kualifikatuentzako urteko hasierako interes tasa aipatutako finantzaketarako lankidetzaz hitzarmenaren araututakoaren arabera finkatuko da lehenengo urtean zehar, honako honen arabera:

Dekretu hau indarrean jartzen denetik 1999ko abenduaren 31ra bitartean onartzen diren maileguentzako benetako interes-tasa izango da 100eko 80 bider 1999ko abuztuari dagokion «Erakundeak guztira» erreferentzia indizea.

2.– Kreditu-erakundeekin 1999ko ekitaldirako izenpetutako finantzaketarako lankidetzaz hitzarmena luzatuz gero, mailegu kualifikatuen urteko hasierako interes-tasa honelaxe finkatuko da, hitzarmen horretan finkatutakoaren arabera:

a) 2000ko urtarrilaren 1etik martxoaren 31 bitartean onetsitako maileguentzako benetako interes-tasa izango da 100eko 80 bider 1999ko azaroari dagokion «Erakundeak guztira» erreferentzia indizea.

b) 2000ko apirilaren 1etik ekainaren 30 bitartean onetsitako maileguentzako benetako interes-tasa izango da 100eko 80 bider 2000ko otsailari dagokion «Erakundeak guztira» erreferentzia indizea.

El Convenio de colaboración financiera suscrito con las entidades de crédito para el ejercicio de 1998 se encuentra prorrogado en el momento actual, por acuerdo formalizado entre ambas partes.

Con esta nueva disposición que regulará los tipos de interés de los préstamos que se concedan durante la vigencia del presente Decreto en relación con las actuaciones protegibles en materia de vivienda y suelo, se continua con los criterios establecidos en el Decreto anterior consolidando el descenso del tipo de interés del mercado hipotecario.

La Ley 2/1999, de 25 de junio, de medidas complementarias en materia económica, presupuestaria y financiera para el ejercicio 1999 faculta, en su artículo 5.4, a adecuar a la evolución actual de los tipos de interés de los programas subvencionales que se instrumentan mediante la modalidad de reducir la carga financiera de operaciones de préstamo mediante la modificación, a estos efectos, de las disposiciones y convenios correspondientes.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Hacienda y Administración Pública y del Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 5 de octubre de 1999

#### DISPONGO:

##### *Artículo Único.*–

1.– El tipo de interés anual inicial, de los préstamos cualificados, que concedan las Entidades de Crédito en el marco del Convenio de Colaboración Financiera que se suscriba en 1999, de actuaciones protegibles relacionadas en el punto 5 de este artículo, durante el primer año de vida del mismo se determinará, conforme a los términos fijados en el citado Convenio de Colaboración, de la siguiente forma:

A los préstamos aprobados desde la entrada en vigor del presente Decreto hasta el 31 de diciembre de 1999 se les aplicará el tipo de interés efectivo resultante de multiplicar el 80 por 100 por el índice de referencia «Total Entidades» correspondiente al mes de agosto de 1999.

2.– En caso de prórroga del Convenio de Colaboración Financiera con las Entidades de Crédito para el año 1999, el tipo de interés anual inicial de los préstamos cualificados se determinará, conforme a los términos fijados en el citado Convenio, de la siguiente forma:

a) A los préstamos aprobados desde el 1 de enero hasta el 31 de marzo del año 2000, se les aplicará el tipo de interés efectivo resultante de multiplicar el 80 por 100 por el índice de referencia «Total Entidades» correspondiente al mes de noviembre de 1999.

b) A los préstamos aprobados desde el 1 de abril hasta el 30 de junio del año 2000, se les aplicará el tipo de interés efectivo resultante de multiplicar el 80 por 100 por el índice de referencia «Total Entidades» correspondiente al mes de febrero del año 2000.

3.- Lehenengo urtetik aurrera interes-tasa aldakorra izango da, finantzaketarako lankidetzaz hitzarmenean araututakoaren arabera.

4.- «Erakundeak guztira» erreferentzia indizeari egindako aipamen guztiak jotzen dira Espainiako Bankuaren Estatistika Buletinean argitaratzen den Altxor eta Finantza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren 1991ko otsailaren 4ko Ebazpenean definitutako indizeari eginak.

5.- Artikulu honetan xedatutakoak eragiten dituen etxebizitza arloko jarduera babesgarriak honako hauek izango dira, berriazko arautegietan xedatutakoa betez:

- a) Babes ofizialeko etxebizitzaren sustaketa.
- b) Babes ofizialeko lehenengo etxebizitzaren erosketaketa.
- c) Tasatutako prezioa duten etxebizitzaren erosketaketa.
- d) Babespeko errentarako diren etxebizitzaren erosketaketa.
- e) Berroneratzeko jarduerak.
- f) Etxebizitza sozialak erregimen pribatuan sustatu eta erostea.
- g) Batez ere babes ofizialeko etxebizitzetarako izandako lur arloko jarduera babesgarriak.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Indargabetuta gelditzen dira etxebizitza eta lur arloan 1998an kreditu-erakundeek emandako mailegu kualifikatuen interes-tasa ezartzen duen 61/1998 Dekretua, martxoaren 24koa, eta dekretu honen aurka doakkeen maila berdineko edo txikiagoko beste xedapen oro.

#### AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.** - Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuak, berarengan dituen eskuduntzen esparruaren barruan, dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzake.

**Bigarrena.** - Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik izango du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1999ko urriaren 5ean.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,  
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza  
eta Ingurugiro sailburua,  
FRANCISCO JOSÉ ORMAZABAL ZAMAKONA.

3.- Superado el primer año el tipo será variable en los términos regulados en el citado Convenio de Colaboración Financiera.

4.- Todas las referencias hechas al Índice de referencia «Total Entidades» han de entenderse hechas al Índice definido en la Resolución de la Dirección General del Tesoro y Política Financiera de fecha 4 de febrero de 1991, que se publica actualmente en el Boletín Estadístico del Banco de España.

5.- Las actuaciones protegibles en materia de vivienda a las que afecta lo dispuesto en este artículo, de acuerdo con lo dispuesto en sus normativas específicas, son:

- a) Promoción de viviendas de protección oficial.
- b) Primera adquisición de viviendas de protección oficial.
- c) Adquisición de viviendas a precio tasado.
- d) Adquisición de viviendas destinadas a su arrendamiento protegido.
- e) Actuaciones de rehabilitación.
- f) Promoción y adquisición de viviendas sociales en régimen privado.
- g) Actuaciones protegibles en materia de suelo con destino preferente a viviendas de protección oficial.

#### DISPOSICIÓN DEROGATORIA ÚNICA

Quedan derogados el Decreto 61/1998, de 24 de marzo, por el que se establece el tipo de interés de los préstamos cualificados otorgados por las entidades de crédito en 1998 en materia de vivienda y suelo y cualesquiera otras normas de igual o inferior rango que se opongan a lo previsto en el presente Decreto.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.** - Se faculta al Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente a dictar, en el marco de sus competencias, cuantas disposiciones sean necesarias, para la aplicación y desarrollo del presente Decreto.

**Segunda.** - El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 5 de octubre de 1999.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,  
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

El Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda  
y Medio Ambiente,  
FRANCISCO JOSÉ ORMAZABAL ZAMAKONA.